

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure enpresan uste dugu bezeroekin dugun harremana ahalik eta gertukoena izatea beharrezkoa dela, konfiantza sortzeko eta elkar hobeto ulertzeko. Bezeroekin kontaktu zuzena izateak aukera ematen digu haien beharrak ezagutzeko eta gure erregaia modu egokian eskaintzeko. Horregatik harreman zuzenari garrantzi handia ematen diogu.

Gure jardueraren zati handi bat aurrez aurre egingo da. Algak hazteko eta erregai bihurtzeko lanak gure instalazioetan egingo direnez, bertan harreman zuzena izango dugu bai bezeroekin bai beste enpresa eta hornitzaileekin. Nahiz eta komunikazioa beste bide batzuen bidez egin daitekeen, uste dugu harreman zuzena izatea lagungarria dela konfiantza sortzeko eta proiektua hobeto azaltzeko. Horregatik, gure erregaia eskaintzerakoan eta lankidetzak sortzerakoan, aurrez aurreko harremana lehenetsiko dugu.

Nahiz eta gure erregaia gure instalazioetan sortzen den, bezero guztiek modu erosoan eskuratu ahal izatea nahi dugu. Horregatik, eskaerak egin daitezke webgunean, edo telefono bidez deituz, eta bertatik erregaia eskatu daiteke.



Horrez gain, harreman automatizatua edukiko dugu. Webgunearen bidez, bezeroekin zuzenean komunikatu ahal izango gara, zalantzak argitzeko eta haien beharrak betetzeko. Modu horretan, edonork gurekin harremanetan jarri ahal izango da erraz eta azkar. Era berean, telefono finko bat egongo da, bezeroek informazioa edo laguntza behar dutenean erabil dezaten.

Bezeroak mantentzeko, deskontuak eskainiko ditugu, adibidez kantitate handiagoa erosten dutenean prezio merkeagoan. Gainera, bezero berriak erakartzeko publizitatea egingo dugu, webgunean eta kanpoan, kartelak eta irudiak erabiliz gure erregaia ezagutarazteko. Era berean, gure proiektua aurkezteko ekitaldiak edo aurkezpenak antolatu ditzakegu, interesa duten guztiei gure erregaia eta bere onurak gertutik azaltzeko.

Horrez gain, bezeroekin harremanetan jarraitzea eta euren iritziak jasotzea oso garrantzitsua izango da guretzat. Horretarako, webgunean formulario bat edo galdetegi txikiak jarriko ditugu, bezeroek zer gustatzen zaien eta zer hobetu daitekeen kontatzeko. Era berean, proiektuaren berriak, eskaintzak eta aurkezpenak modu errazean komunikatuko ditugu, bezeroek beti eguneratuta egon daitezzen.